



Unai Insaustiren gitarra emanaldia 20:00etan hasiko da. HITZA

Gitarra doinuak basilikan, bihar

Unai Insaustiren emanaldiaz gain, Carmen Becerrak ere gitarra kontzertua eskainiko du hilaren 28an• Insaustik nazioarteko hainbat sari eskuratu ditu

-IKERNE ZARATE

Errenteria-Orereta

Maria Magdalenenaren Lagunak Kultur Elkarteak antolatuta, gitarra emanaldia eskainiko du bihar Unai Insausti gitarristak. Ez da elkarteak Madalenenaren basilikan antolatu duen gitarra emanaldi bakarra, izan ere, hilaren 28an (12:00etan) Carmen Becerrak eskainiko du hileko gitarraren emanaldien zikloa osatzeko bigarren kontzertua.

Bi emanaldiak osagarriak izango direla jakinarazi du larunbatean kontzertua eskainiko duen Insaustik, «nire emanaldiko errepertorioa klasiko izango da, musika kultura ere deitzen dute, eta Becerrak, berriz, herri musikaren barruan sailkatutako piezak eskainiko ditu bere kontzertuan».

Orain arte Maria Magdalenenaren Lagunak Kultur Elkarteak antolatutako emanaldi guztiak bezala, larunbatekoa ere doakoa izango da eta 20:00etan hasiko da. Garai erromantikotik hasi eta XX. mendera arteko musika bil-

du du Insaustik bere biharko emanaldirako, «garai ezberdinak eta musika estilo ezberdinak hautatu ditut kontzerturako. Oso lirikoak diren piezak eta osagai erritmikoak dituztenak nahastuko dira».

Nazioarteko sariak

Nazioarteko hainbat sari eskuratu dituen gitarrista donostiarrak Errenterian kontzertua ematea, «plazera» da harentzat, «Gipuzkoan, etxean emanaldia egitea hunkigarriagoa delako beti».

Napoleon Coste, Antonio Ruiz-Pipo, Antonio Jimenez Manjon, Joaquin Rodrigo, eta Alberto Ginasteraren lanak joko ditu donostiarrak.

Antolatzaileek herritar guztiak animatu dituzte Madalena basilikara hurbildu, eta Insaustik eskainiko duen gitarra emanaldiarekin gozatzera. Izan ere, Errenteria-Oreretako gune hori herritarrengana zabaltzea da elkarteak kideen asmoa urtean zehar antolatzen dituztenekin.

izarate@hitza.eus

Publierreportajea

Autogestioan oinarrituta, Sutearon bazkideek babesten dituzte euren etxebizitzak

Sutearo

Landa eremuetako etxebizitzak babestea. Horretan datza Sutearen lanaren garrantzia. Duela 26 urte Bizkaiko Lea-Artibai eskualdeko herritarrek hasitako lanari heldu, eta Euskal Herriko hainbat txokotara zabaldu dira sutearoak. Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, guztira, 39 sutearo edo ermandade dira gaur egun.

Elkarte bezala funtzionatzen dute, kooperatiba baten filosofia da Sutearena. Hala, bazkide denen artean babesten dituzte etxebizitzak. Autogestioan oinarritzen dira horretarako, eta denen artean babesten dituzte etxebizitzak, denen parte hartzearekin. Hori, eta irabazi asmorik ez izatea da aseguru etxeengandik bereizten diena.

Zornotzan dute bulegoa, eta hango langileek bazkideen beharrik kudeatzen dituzte. Hori da euren lana, sutearoetan, modu autonomoan, hartzen dituzten erabakiak kudeatzea. «Normalean, denek ditugu arau berdinak baina bazkideek erabakitzen dute arau horiek zeintzuk diren. Sutearok ermandadeen agindua betetzen ditu, aurrera eramana», diote.

Beraz, lehenago ere bazegoen errealtate bati forma juridikoa

emateko sortu zen Sutearoko Federazioa, etorkizuna bermatzeko. Bazkideak jartzen duen diruarekin guztion artean, era solidarioan, ordaintzen dituzte kalteak. «Bazkideak jartzen duen dirua konponketak, sinies-



troak eta abarrak ordaintzeko erabiltzen da. Eta baja ematerakoan bazkide horrek Sutearen poltsan dirurik balu, bueltan hartuko luke. Bazkide denek aportatzen dute Sutearen proportzio berdina, bakoitzak bere etxearen balioaren arabera».

Tokian tokiko erabakiak

Baserrien jabeak dira, batez ere, Sutearora jotzen dutenak, aseguru etxeentzat ez baitira erakargarriak. Eraikuntza handiak dira, eta etxebizitzek baino arrisku gehiago dituzte. Horregatik, baserrien jabeek aseguru etxee-

tan ordaindu behar duten kuota oso garestia izaten da. Sutearok, aldiz, ez ditu baserriak baztertzen, bere barruan hartzen ditu, «gure ardura delako baserri inguruko etxebizitzak babestea».

Horregatik, Sutearora hurbiltzen direnei beren filosofiarekin bat egitea eskatzen diete, ez prezioagatik. «Autogestioan, lankidetzan lan egiten dugu, eta bazterretara joateko eskatzen dugu, erabakiak denen artean hartzen ditugulako. Elkarte transbersala da, eta gure proiektua denen artean egindakoa da», nabarmendu dute.

Ermandade bakoitzean batzar bat egiten dute urtean, inguruko bazkide denak biltzen dituen. Urteko balantzea egin, kontuak aurkeztu eta eztabaidatu beharrekoak lantzen dituzte, sutearo bakoitzean tokiko gai ordenari jarraituz. Horrez gain, ermandadearen batzordea aldatzeko baliatzen dute batzarra, eta

hurrengo urtean ermandadeko ordezkarri zeintzuk izango diren jakinarazteko.

Autonomoak direlako du sutearo bakoitzak tokian tokiko batzordea. Hurbila delako. Eta bazkideek duten beste abantaila bat da norberak erabakitzen duela etxean egin beharreko konponketa nor egingo duen. «Sutearok peritoxo bidaltzen du, baina gremioa bazkideak berak bilatzen du, ingurukoaren artean sinergiak lortzeko, eta, kilometro cero deritzan horretan oinarrituta, tokiko jendeari ere lana emateko».

SUTEARO, LANDA EREMUETAN KOKATUTA DAUDEN ETXEBIZITZAK BABESTERA ZUZENDUA

ELKARRI LAGUNTZEKO ERAKUNDEA

Auzolana - Elkarlana

Jauregiar, 10 - Ibehu • 481340 Amerretxeko - Etxano • tel: 94 530 00 02 - 660 39 07 00 • suteano@suteano.eus • www.suteano.eus

SUTEARO